

EKINTZA HUMANITARIOARI BURUZKO LAN-DOKUMENTUAK

1. zk.

**“Eraldatzen ari den sistema humanitarioa.
Munduko Goi Bileren Humanitarioaren osteko
erronkak”**

Aurkezpena

“Eraldatzen ari den sistema humanitarioa. Munduko Goi Bilera Humanitarioaren osteko erronkak” izeneko lan-dokumentua aurkezten dizuegu. Ekintza humanitarioari buruzko bilduma osatzen duten bost koadernoetako lehena da. Ekintza humanitarioak gaur egun dituen erronkez eta joerez gain, beste hainbat gai ere landuko dira, hala nola ekintza humanitarioaren kontzeptua eta mugak; ekintza humanitarioa abiarazten duten eragileak; genero-ekitatearen ikuspegiaren zeharkakotasuna; ingurumen-jasangarritasuna edo giza eskubideak; eta kontu-ematea.

Dokumentu hauetan egungo erronkak biltzen dira, baita erakunde humanitarioek, emaileek, erakundeek eta ikerketa-komunitateak ekintza humanitarioari buruz izaten dituzten eztabaida nagusiak ere, nazioarteko elkartasunaren eremu horretan eraginkortasuna eta kontu-ematea hobetzeko asmoz.

Gainera, elementu baliotsuak dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) 2017an abian jarri duen Ekintza Humanitarioaren Estrategia egiteko prozesurako, Estrategia horren helburua erronka horiei erantzutea baita beren ezaugarrietatik eta ahalmenetatik abiatuta.

Dokumentu sorta hau Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikerketa Institutuko (UPV/EHU) ikertzaile Karlos Pérez de Armiñoren koordinaziopean egin da. Lehenengo zenbaki honen egileak IECAH-Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketa Institutuko Francisco Rey Marcos, Alicia Pérez Daza, Atria Mier eta Camille Nussbaum dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez du zertan nahitaez bat etorri lan honetan adierazitako iritziekin.

Dokumentu honek *Creative Commons* erakundearen lizentzia dauka. Lan hau kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean hedatzeko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Ezin da aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoa

ERALDATZEN ARI DEN SISTEMA HUMANITARIOA. MUNDUKO GOI-BILERA HUMANITARIOAREN OSTEKO ERRONKAK

1. Sarrera

Azken hamarkada honetan aldaketa garrantzitsuak egin dira sistema humanitarioa deitutakoan; aldaketa horiek bizkortu egin dira 2016ko maiatzean Istanbulean egin zen lehenengo **Munduko Goi Bilera Humanitaria** (WHS) egin izanaren ondorioz. Beharbada, Goi Bilera ez zen sortu zituen itxaropen handien parean egon, baina sistema humanitarioaren erakundeen eta eragileen alorreko gai garrantzitsuetako batzuk mahai gainean jartzeko balio izan zuen. Dokumentu honen bitartez, sistema humanitarioarekin lotutako gai horietako batzuk antolatu nahi dira, gai horien inguruan sortzen diren eztabaidak ez ezik, hainbat eragileren iritziak ere aztertuz.

2. Testuinguruan izandako aldaketei buruzko azterketa eskasa

Erakunde humanitarioek ahalegin handia egin dute nazioarteko agertokian zer aldaketa izan diren eta aldaketa horiek egiteak nola eragin dezakeen ulertzeko. Mundua oso desberdina da Dunant-en garaiaz geroztik, hau da, mendebaldeko humanitarismo modernoa sortzen denez geroztik, baina oso desberdina da, halaber, munduko gerraosteko garaiarekiko, hots, instrumentu juridiko berriak bultzatu ziren garaiarekiko, edo 90eko hamarkadarekiko, hau da, nazioarteko erakundeek kontuan hartu zutela ematen duen garaiarekiko. Testuinguru-aldaketa batzuk oso zalantza gutxi sorrarazten dituzte:

- **Mehatxu naturalek, eta bereziki hidrometeorologikoen** sortutako hondamendiak **ohikoagoak dira, eragin handiagoa dute biztanleengan, beren ondasunetan eta beren bizimoduetan**, galera ekonomiko garrantzitsuagoak eragiten dituzte eta herrialde garatuei ere eragiten diete. **Klima-aldaketarekin** duten lotura argia da. Eraginpean duten oinarrizko kalteberatasunak larriagotu egiten ditu hondamendiak.
- **Gatazka armatuen konplexutasunak eta harekin lotutako kausa ugariak** gora egiten jarraitu dute; gatazka horiek herrialdeetako barnealdean garatzen dira batez ere, baina ez dute nazioarteko ondorioirik, eta estatukoak ez diren eragileen protagonismoa gero eta handiagoa da.

Beste aldaketa batzuk, ordea, ez dira behar adina ulertu, eta gainera ez dute erakunde humanitarioen eguneroko lanean eragin.

- Lehenik eta behin, **indarkeria modu berrien hazkundera** eta, bereziki, hiri-indarkeriaren hazkundera eta indarkeria modu horiek desplazamendu behartuari dagokionez izaten ari diren ondorioak.
- **Migrazio-fenomenoa** bere osotasunean ulertu behar da, orain arte izan ditugun eskema juridiko eta politiko zaharrak gaindituz. Esate baterako, klima-aldaketa errefuxiatu eta ohiko definizio juridikoetara egokitzen ez diren barne-desplazamendu asko sortzen ari da.

Testuinguru horretan, aurreko urteetan proposatu diren aldaketek ez dute garrantzi handirik izan. Aldaketa horietako gehienak gehiago egon dira pentsatuta sistema humanitarioaren barrurako, baina ez dituzte landu sistema horri eragiten dioten gai globalak. Askoren ustez, **sistema humanitaria legitimitate-krisialdia igarotzen ari**

da, eta ez dugu asmatzen egoera hori behar adinako sakontasunez lantzen. Langile humanitariook ez dugu jakin guk lan egiten dugun errealitate aldakorrera egokitzen, besterik ez.

3. Sistema bat, batzuk, ekosistema bat?


Hondamendiei erantzuna ematen parte hartzen duten erakundeen kopurua eta aniztasuna asko igo da. Baina, kasu gehienetan, beti bat ez datozen ikuspegiak dituzte. Horregatik, litekeena da zuzena ez izatea **“sistemaz” hitz egitea** honako hau ikusten dugunean:

- **Baliabideak krisi bakoitzaren premietara modu proportzionalen erabiltzeko** ezintasun garbia. Hori bereziki nabarmena da krisi mediatikoenak ahaztutako krisiekin eta krisi luzeekin alderatzen baditugu.
- Horrenbestez, **bi errealitate oso desberdin** ikusten ditugu: **eragile gehiegi** dauden egoerak (2004ko Asiako tsunamia, 2010eko Haitiko lurrikara...) eta **ia inor ez dagoen beste egoera batzuk** (MGM, 2014).
- Errealitateak oso **desberdinak** dira, halaber, **hondamendi-testuinguruan, gatazka-testuinguruan edo larrialdi konplexuko testuinguruan**. Gatazketan lan egiteak eragiten duen zailtasunak mugatu egiten du erakunde kopurua.
- Nolanahi ere, Nazio Batuen ahaleginak gorabehera, **ez dago lidergorik, ez da nahikoa edo zalantzan jartzen da, eta koordinazio efikaz eta eraginkorra mugatua da**.
- Azkenik, **printzipio humanitarioen inguruko zalantzak** daude. Batzuen ustez, “mendebaldeko unibertsalismoarekin” nahasten dira, edo “berezitasun humanitarioaren” euskarri izan daitezke berezitasun horrek krisiei erantzuteko eragile gehiago sar daitezten eragozteko joera duelako. (ODI, 2016). Beste batzuen ustez, ordea, ezin da zalantzan jarri printzipioetan oinarritutako laguntza, nahiz eta beste ikuspegi batzuetara ireki behar den (Kent et al. 2016).

4. ¿Behar bezala kontabilizatzen ari al gara nazioko eta nazioarteko ahaleginak? Finantzaketa humanitarioari buruzko datu batzuk

2015. urtea datu itxiak ditugun azken urtea da; urte horretan, gobernuek ematen duten nazioarteko ekintza humanitaria nahiz emaile pribatuek ematen dutena igo egin zen hirugarren urtez segidan, **28.000 milioi dolar** izatera iritsi baitzen (**inoiz izan den kopururik handiena**). Nolanahi ere, datuak zehatzago aztertzen baditugu, (Development Initiatives, 2016; IECAH, 2016) ikusiko dugu ez duela ematen dinamika orokorrak aldatzen ari direnik. Laguntza herrialde hartzaileen kopuru mugatu batean biltzen da, eta, termino orokorretan, finantzaaketaren igoera ez da iristen identifikatutako premia humanitarioen hazkundearen erritmora. Azken dinamika horrek azaltzen ditu krisi jakin batzuk estaltzeko dauden hutsuneak (*emergency gap*) (MGM, 2016). Gainera, ahalegin nazionalak, Hegoalde-Hegoalde eta beste eragile ez-konbentzional batzuen ahaleginak ez dira ondo kontabilizatzen, eta finantza-ikuspegitik begiratuta ez ezik, egungo kontabilitate-sistemak erabiliz ere, esan dezakegu “emaileen” errealitatea ez dela hainbeste aldatu. Ezta “biztanleria onuradunaren” errealitatea ere.

F1. Nazioarteko laguntza humanitarioaren 10 hartzaile nagusiak



Iturria: *Development Initiatives*, honako hauen datuekin egina: GLB-ELGE, NBeren OCHA bulegoaren FTS zerbitzua eta NBeren CERF Funtza

Finantzaketarik ez izatea arazo bat bada ere, ez da arazo nagusia. Izan ere, egungo funtsak igoko balira ere, ez lirateke konponduko sistemak gaur egun aurre egin behar dien egiturazko arazo batzuk. Finantza-premien aurreikuspena hobetzeaz gain, finantzaketa humanitariorako epe ertainerako eta luzerako aurreikuspen-eredu bat sortu behar da etorkizuneko premiak betetzeko aurreikuspen eta gaitasun handiagoa emateko. Finantzaketa krisialdi luzeetan eta errepikatzen direnetan biltzen da bereziki. Epe luzeagorako finantzaketa (urte anitzekoa eta multipolarra) ezartzea eta funts humanitarioak garapen-funtsetara eta garapen-funtsak funts humanitarioetara


malgutasun handiagoz transferitzeko prestatuta egotea dira, besteak beste, erronketako batzuk (ALNAP, 2016).

5. Hainbat eragile: aldaketak eta joerak

Sistema “mapan kokatzeko” garaian, honako elementu hauek nabarmendu ditzakegu:

- **Mendebaldeko oligopolioa** sistemaren erdian. Sisteman garrantzia duten eragileek, emaileak izan edo nazioarteko gobernu kanpoko erakundeak (GKE) izan, mobilizatutako baliabide asko biltzen dituzte eta toki gutxi uzten diete gainerakoei. Sistema humanitario berri bategi aztertu beharko luke egun dagoen mendebaldeko sistemak botere-kuotari uko egitea ikuspegi zabalago eta inklusibo batera irekitzeko (ODI, 2016).

F2. Nazioarteko laguntza humanitaria ematen duten 20 Gobernu garrantzitsuenak, 2015



Iturria: *Development Initiatives*, honako hauen datuekin egina: GLB-ELGE, NBERen OCHA bulegoaren FTS zerbitzua

- **Nazio Batuen Erakundearen (NBE) protagonismoa.** Protagonismo hori 1992ko 46/182 Ebazpenetik aurrera zehazten joan da, baina eraginkortasun erlatiboa du oraindik ere (agentzien konplexutasun handiegia, agentzien arteko kolisioa eta aldaketarekiko erresistentzia, zailtasunak eta inkoherentziak gatazka armatuetan). Egoera horretan, OCHA oso posizio konplikatuan dago.
- Aldaketa batzuk **Estatu emaileen** egoeran. “Emaile berriak” (Brasil, Txina, Golkoko herrialdeak...) izeneko enbretara positiboa izan da premiak maila globalean areagotzearen testuinguruan. Nolanahi ere, bereizten da funts mobilizatuen hegakortasunarengatik eta/edo krisi jakin batzuetarako soilik esleitzen direlako. Emaile nagusiak biltzen dituen **Emate Humanitario Ona** ekimenaren benetako inpaktua oraindik ere mugatua da eta laguntza gehiago lortzeko aukera oso gutxi ditu.
- **Europar Batasunaren (EB) porrot handia.** Historikoki Europar Batasuna munduko eragile nagusia izan da sistema humanitarioan. Lehenengo mailako emaile izaten jarraitzen du, baina 2013az geroztik, konprometitutako funtsek

behera egin dute eta Europar Batasunaren araudien bilakaerak politizatu egin du humanitarioa dena. Oker deitutako “errefuxiatuen krisiaren” kudeaketak agerian jartzen ditu Europar Batasunaren apustu humanitarioaren kontraesanak eta inkoherentziak. Laguntza Humanitarioaren eta Babes Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren (DG-ECHO) zeregina garrantzitsua bada ere, Europar Batasunak duen zeregin globalak haren sinesgarritasunean eragiten du. Eta ikuspegiak ezkorrak dira.

- **Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) Donald Trumpen presidentziak** eremu horretan izan dezakeen **inpaktuarekiko kezka**. Ez soilik AEBk finantzaketa globalaren ia heren bat ematen duelako eta Nazio Batuen Erakundeko agentzien aurrekontuaren zati handi bat delako, baita asiloaren eta babesaren alorrean aldaketak izango direlako eta krisiei erantzun politizatu emango zaielako ere.
- **Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua** erantzun humanitarioaren alorreko sare bakarra da eta erreferente bat sistemari proposatutako erronkei dagokienez sare deszentralizatu delako eta agindu ugari dituelako.
- **GKEak** testuinguru askotan erantzun humanitarioen erdian daude. Nolanahi ere, aniztasun handia dago erakunde horien aginduen eta bitartekoen arabera eta/edo nazionalak edo nazioartekoak diren kontuan hartuta. Nahiz eta Gobernuz Kanpoko Erakunde gehienak Hegoaldean ere badauden eta beren mugen barruan krisien lehenengo lerroan dauden, oso handiak diren erakunde batzuk gailentzen dira egoera honetan: Iparraldeko GKE horietatik bostek (Mugarik Gabeko Medikak, Save the Children, Oxfam, World Vision, International Rescue Committee) GKEek mobilizatutako baliabideen heren bat inguru kudeatzen dute (ALNAP, 2016). Hala eta guztiz ere, tokiko eragileei protagonismo handiagoa emateko proposamenak, hots, **“lokalizazioa”** deitutakoa aurrera egiten ari da.
- **Diasporak** gero eta gehiago onartzen dira krisiei ematen zaien erantzunetan; diaspora horiek “borondatezko” migrazioaren edo migrazio behartuaren ondoriozkoak diren kontuan hartu gabe.
- **“Eraginpeko” Estatuak** zeregina oso desberdina da beren gaitasunen eta/edo krisi motaren arabera (hondamendi naturalak edo gatazka armatua). Hondamendiei ematen zaien erantzunean duten zeregina gero eta protagonistagoa da. Gero eta garrantzitsuagoa da, halaber, eskualdeko elkarteek erantzun horretan duten zeregina.
- **Indar Armatuak** leku garrantzitsua hartzen dute krisi-testuinguru askotan. Armada nazionalak nahiz nazioarteko indarrek hainbat agindu izanik. Eragile humanitarioek indar armatu horiekin ezarri behar duten harremana lehen mailako erronka bat da bake-lanetan, bereziki “misio integratuen” eredian, eredu horrek arriskuak dituelako eragile humanitarioen sinesgarritasunerako eta segurtasunerako ekintza humanitarioa beste politika batzuen tresna bat besterik ez dela ulertzen baita.
- **Sektore pribatuak** gero eta protagonismo handiagoa hartzen du krisiei erantzuteko garaian, bereziki hondamendi naturalen kasuan, funtsak mobilizatzen dituelako, baina baita laguntza teknikoa eta materiala ematen duelako ere, batez ere GKEen bitartez.
- Kategoria horietaz gain, panorama humanitarioan nolabaiteko eragina eta protagonismoa duten **beste eragile batzuk** identifika daitezke (hedabideak, garapeneko erakundeak, giza eskubideen erakundeak, bakea eraikitzeo erakundeak).
- **Eskubideak dituzten pertsonak**. Sistemaren erdian egon beharko lukete, baina askotan ez da horrela izaten. Dagoeneko ez dira premiak dituzten subjektutzat hartzen, baizik eta eskubideak dituzten subjektutzat hartzen dira,

eta eskubideak dituzten subjektuak direnez, kontu-ematea subjektu horiengana bideratu behar da lehendabizi. Ikuspegi horrek, gainera, eskatzen du subjektu horiek erabateko partaidetza izatea premiak identifikatzeko, diagnostikoa egiteko, ezartzeko, monitorizatzeko eta atzeraelikatzekeo garaian. Subjektu horiek “kontuan hartu gabe” diseinatzen eta ezartzen jarraitzen badugu, akats berak egiten jarraituko dugu eta jende asko utziko dugu atzean. Izan ere, gaur egun, agentzia humanitarioek “identifikatu ez dituzten” eta babes-premia handiak dituzten pertsona asko “sistematik” kanpo geratzen dira: migratzaileak, lurraldearen barnean lekuz aldatutako pertsonak, ingurumen-arrazoiak direla medio lekuz aldatutako pertsonak, LGTBI pertsonak, eta abar. Hala eta guztiz ere, “sistemak” batez ere premien ikuspegiarekin jarraitzen du lanean, eta ez ditu behar adina sartu “eskubideetan oinarritutako ikuspegiak”, nahiz eta *babesa nabarmentzea* aurrerapen batzuk lortzen ari den.

6. Sistemak funtzionatzen al du? Eraginpeko pertsonen iritzia

Zalantzarik gabe, bizitzak salbatzen dira, gai humanitarioak zabaldu egin dira, funtsak hazi egin dira, larrialdi batzuei azkarrago erantzuten zaie, eragile berriak sartzen dira eta ematen du nazioarteko erakundeek lehen baino arreta handiagoa eskaintzen diotela. Hala eta guztiz ere, onuradunen pertzepzioari buruzko ebaluazioak kritikoa dira eta hobetu daitezkeen asebetetze-mailak erakusten dituzte. Larrialdi konplexuko lau testuingurutan duela gutxi egindako txosten batean (GPPi, 2016) ondorioztatzen da kaltetutako komunitateen ehunekoa oso txiki batek esan zuela agentziek/emaileek kontsulta egin zirela.

Azterlan hau egin den lau herrialdeetan (Afganistan, Sudan Hegoaldea, Somalia, Siria/Turkia) inkesta egin zaien komunitate gehienei ez zaie inoiz eskatu laguntza-erakundeetatik jaso zuten laguntzari buruzko iritzia emateko. Horrek berresten ditu hainbat herrialdeetako komunitateekin eskala handian egin diren beste kontsulta batzuen emaitzak: krisiaren eraginpeko oso pertsona gutxi izan dute zuzeneko harremana pertsona humanitarioekin eta atzematen da agentziek ez dutela informazioa partekatzen komunitatearekin orokorrean (ODI, 2016). Nahiz eta partaidetza eremu humanitarioko kalitateko ekimen guztien (Esfera, HAP) eta Funtsezko Arau Humanitarioaren (CHS dira ingeleseko siglak) zati den, partaidetzaren benetako aplikazioa oso txikia da oraindik.

Egoera horretan, berrikuntzak garrantzi berezia hartzen du ikuspegi tekniko eta teknologikotik ez ezik, edozein motatako arazori eta sistemaren mugei (finantzaketa, antolamendua, kalitatearen kudeaketa, eta abar) erantzuteko konponbide berriak proposatzeko ikuspegi orokorrago batetik ere ulertzen badugu. Gainera, funtsezkoa izango da serioki hartzea **kontu-ematea**, eskubideen titularrak diren pertsonen begirako ariketa gisa eta ez soilik finantzatzaileei begirako ariketa gisa.

7. “Sistemaren inguruan” izandako eta egindako azken eztabaida eta proposamen batzuk

Azken urte hauetan, eta bereziki Munduko Goi Bilera Humanitarioaren prozesuari esker, sektore humanitarioan hainbat eztabaida garrantzitsu egituratu dira:

- Laguntzaren “**lokalizazioa**” Munduko Goi Bilera Humanitariotik sortu diren eta tokiko eragileei protagonismo eta lidergo handiagoa eman nahi dieten hainbat ekimenen (*Grand Bargain*, *Charter for change*,...) erdigunean dago. Oraindik ere proposamen oso desberdinak daude eragile horiek biltzen dituen perimetroa argi eta garbi ezartzeko (nazioarteko GKE handien filialak, tokiko

erakundeak eta abar ere sartu beharko al lirateke?) Dena den, lokalizatorako agenda abian jarri da eta epe luze eta ertainerako oso helburu handiak ditu: tokian tokitik zuzenean kudeatutako funtsen % 20 2018an eta % 25 2020an. Batzuen ustez, “lokalizazio” hori egin liteke hondamendien kasuan, ez, ordea, gatazka armatuen kasuan (MGM, 2016).

- **Erakunde humanitarioen agindu mota** nortasun-adierazgarri garrantzitsua da oraindik ere, bere alde onekin eta txarrekin, eremu humanitarioan inpaktu sendoa bermatzeko. Erakunde batzuek hainbat lan-ildo biltzearen aldeko apustua egiten dute, hau da, larrialdiei erantzuteko ekintzak gauzatzen dituzte, baita epe luzerako ekintzak eta erresilientzia eta garapena sustatzeko ekintzak ere (agindu askotariko agentziak); beste batzuek, ordea, nahiago dute beren ahaleginak lehentasun humanitarioei eskaintzea.
- **Ohiko eragileen, eta bereziki NBERen agentzien aldetarekiko erresistentziak.** Espero zen Munduko Goi Bilera Humanitarioan aginduen bikoiztasunei buruzko gai gehiago proposatzea, kasu askotan begien bistakoak zirenak, baina ez da ia ezer aurreratu horretan. **Grand Bargainek** soilik aztertu du gai hori partzialki. (WHS (1), 2016).
- NBERen inguruko eragile humanitarioen egungo **zentralizazioaren** eta **tokiko eragileek deszentralizatzeko eta ahalduntzeko** gero eta gehiago egiten duten eskaeraren **arteko tentsioa**. Batzuen ustez, horrek kontraesana dakar; beste batzuen ustez, ordea, nolabaiteko emaitza lor liteke. Koordinazio-unitate bat behar da (NBERen dauden egituren inguruan), unitate sendoa eta behar adinako ahalmenak dituena, batez ere krisi akutu eta konplexuetan estatuko ahalmenak gainditzen diren lekuetan premia humanitarioei aurre egiteko. Era berean, egitura eraginkorrak eta malguak behar dira, ahalmenak sortzea eta tokiko eta eskualdeko mailetan parte-hartzea oinarritzat hartuta eraikitzen direnak.
- **Normalean onartzen diren printzipio humanitarioak partekatzen ez dituzten eragileak sartzeari.** Eragile gehienek ustez, eutsi egin behar zaio “printzipioetan oinarritutako humanitarismoari”; aitzitik, beste batzuek termino kulturaletan ez ezik, termino erlijiosoetan ere gehiago irekitzearen alde egiten dute (ODI, 2016; Kent et al. 2016).
- **Etorkizunetik planifikatzea** (*Planning from the future*) proiektuak egin duen azken proposamenetako batean –gehien bukatuta dauden proposamenetako batean– hainbat erakunde akademikok eta espezialistak hartzen dute parte. Proposamen horretan sei ardatz planteatzen dira ekintza humanitarioaren eta bere sistemaren “etorkizuneko ikuspegiak”: eragile guztien ordezkari izatea (*stakeholders*); printzipioetan oinarrituta egotea; babesa sartzeari; kontuak ematea; alderdikoia ez izatea; profesionala izatea. (Kent et al. 2016).


Hainbat eztabaida “klasiko” birdefinitu eta egokitu dira oraindik ere, hala nola **laguntzaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko lotura** (VARD), **hondamendi-arriskuen murrizketa eta kudeaketa** (RRD) garapen-eragileen eta eragile humanitarioen lan-eremu gisa, **erresilientzia-ikuspegiak** edo **giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak** –**babes-jardueren** inguruko garapenei lotuta dagoena– edo ekintza guztietan kulturaren eta arrazaren arloko **ikuspegi bereizgarria** sartzeko premia.

8. Espainiako Lankidetzarako erronka batzuk

Azken urte hauetan, jarraitutasuna izan da Espainiako ekintza humanitarioaren nortasun-adierazgarria bere lehentasunei dagokienez nahiz **mobilizatutako baliabideen jaitsierari** dagokionez, tamalez. Jaitsiera hori Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) igo den testuinguruan gertatu da: 2015ean, funts horiek igo egin dira

1.626,72 milioi izatera iritsi arte (horrek esan nahi du 2014. urtearekin alderatzen badugu, % 14,7ko igoera izan dela). Baina laguntza humanitariorako erabiltzen diren funtsek behera egiten jarraitu dute; krisialdian gehien murriztu den politika publikoa izan da, % 90 jaitsi baita (IECAH-MGM, 2016).

F3. Espainiako Lankidetzak Laguntza Humanitariora bideratu duen Garapenerako Laguntza Ofizialaren bilakaera (2001-2015)



Iturria: Geuk egina Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren iraulketatik abiatuta

Espainiako lankidetzak garrantzia galdu du emaile multzoan ere, eta gai jakin batzuetan soilik eduki ahal izan du nolabaiteko eragina Munduko Goi Bilera Humanitarioaren aurretik eta Munduko Goi Bilera Humanitarioak iraun duen bitartean¹:

- **Babesarekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin (NZH)** lotutako gaietan nabarmentzen diren ahaleginak. Ahalegin horietaz gain, Espainiako diplomaziak beste ekintza batzuk egikaritu ditu, esate baterako, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren barnean.
- Munduko Goi Bilera Humanitarioaren aurretik **generoaren** alorreko gaietan egindako lanak. Lan horiek Espainiako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren ezaugarriak dira oraindik ere.
- Munduko Goi Bilera Humanitarioaren prozesutik aurrera, **Espainia Grand Bargain delakoan sartu da duela gutxi**; ekimen hori emaile nagusi batzuen da, finantzaketa-prozesuak hobetzea lortu nahi duena, laguntzaren eraginkortasun handiagoa bermatzeko asmoz.

¹ IECAH Institutuak, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren Ekintza Humanitarioko Bulegoarekin (OAH) elkarlanean, Munduko Goi Bilera Humanitariao prestatzeko bi mintegi antolatu zituen eragile garrantzitsuenekin.

Grand Bargainen konpromisoen laburpena

- Gardentasun handiagoa izatea
- Laguntza handiagoa ematea tokiko eragileei eta eragile nazionaleri
- Eskudirutan oinarritutako erantzunen erabilera eta koordinazioa areagotzea
- Bikoizketa eta kudeaketa-gastuak murriztea
- Premia komun eta inpartzialen balioespenak sustatzea
- “Partaidetzaren iraultza”: kaltetutako pertsonak erabakiak hartzeko garaian sartuz
- Laguntza areagotzea urte anitzeko plangintzaren eta finantzaketaren alorrean
- Ekarpenean “finalistak” murriztea (*earmarking*)
- Justifikatzeko baldintzak eta txostenak bateratzea eta sinplifikatzea
- Eragile humanitarioen eta garapenerako eragileen arteko konpromisoa sustatzea

Grand Bargainen konpromisoak erreferentziatzen hartu beharko lituzke Espainiako ekintza humanitario osoak, eta, gainera, konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipen-mekanismoak ezarri beharko lituzke, beste erakunde batzuk egiten ari diren bezala.

Gai horietaz gain, **laguntza deszentralizatuak** Espainiako lankidetzaren nortasun-adierazgarria izaten jarraitzen du, nahiz eta azken hamarkada honetan jaitziera handia izan duen. **Autonomia Erkidegoek**, 2015. urtean, 9,9 milioi euro bideratu zituzten ekintza humanitarioerako, eta gobernu batzuek –autonomietakoek eta tokikoek– garapenerako lankidetzaren alorrean orokorrean eta ekintza humanitarioaren alorrean bereziki interes handiagoa izateak aurrerapen handiak ekar ditzake.

Bide horretan, lankidetzaren deszentralizatuak landu behar dituen hainbat gai proposatzen dira:

- **Nazioarteko** joera eta **ekimenetan** modu ausartagoan sartzea. Autonomia Erkidego batzuek oraindik ere erabiltzen dituzten planteamendu zaharkitu samarrak eguneratzea.
- Beste eragile batzuekin alderatuta duten **balio erantsia** identifikatzea.
- Erabakitzea zer **eremu geografikotan eta/edo espezialitate-arlotan** ahalbidetu dezaketen bete gabe dauden premiei erantzutea (*gapak*).
- **Koordinazio-mekanismoak** sartzea, alde batetik, erantzun humanitariotik haratago doazen ekintzak gauzatuz (hondamendi-arriskuaren kudeaketa eta murrizketa eta laguntzaren, birgaitzearen eta garapeneraren arteko lotura); eta bestetik, finantzaketa autonomikoaren errealitateetara eta erantzun humanitarioaren eskakizunetara **egokitutako funtsak koordinatzeko eta ordaintzeko mekanismoak** sartzea.
- **Gai humanitarioei buruzko ezagutza bultzatzea** biztanleriaren artean hezkuntzaren eta kanpainen bitartez nahiz lankidetzari emandako laguntzari berriro ekinez.

Bibliografía

ALNAP, 2016. *El estado del Sistema humanitario 2015*.

<http://www.alnap.org/resource/21536>

Development Initiatives, 2016. *Global Humanitarian Assistance 2016*.

<http://www.globalhumanitarianassistance.org/report/gha2016/>

Global Public Policy Institute (GPPI), 2016. *Briefing note. Secure Access in Volatile Environments What It Takes: Enabling access and quality aid in insecure environments*.

http://www.gppi.net/fileadmin/user_upload/media/pub/2016/SAVE__2016__Enabling_access_and_quality_aid_in_insecure_environments__Briefing_Note.pdf

Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketa Institutua (IECAH), Mugarik Gabeko Medikak (MGM), 2015. *La acción humanitaria en 2014 - 2015: ¿fin de una época?*

https://www.iecah.org/images/stories/publicaciones/Informe_Anual_IECAH_2014-2015.pdf

IECAH - MGM, 2016. *La acción humanitaria en 2015-2016. Un modelo en crisis*.

<http://campusiecah.org/www/F/WEB/La%20AH%20en%202015%202016-%20Un%20modelo%20en%20crisis.pdf>

Kent, Randolph; Bennett, Christina; Donini, Antonio; Maxwell, Daniel. (2016) *Planning from the Future: Is the Humanitarian System Fit for Purpose?*

<http://www.planningfromthefuture.org/>

MGM, 2014. *Where is everyone? Responding to emergencies in the most difficult places*. <https://www.msf.org.uk/content/where-everyone>

MGM, 2016. *Emergency gap: Humanitarian action critically wounded*, Emergency gap series 01. <https://emergencygap.msf.es/papers/emergency-gap-humanitarian-action-critically-wounded>

Overseas Development Institute (ODI), 2016. *Time to let go. Remaking humanitarian action for the modern era*. <https://www.odi.org/sites/odi.org.uk/files/resource-documents/10422.pdf>

Oxfam Intermon, 2015. *Poniendo el sistema humanitario de cabeza*.

www.oxfam.org/sites/www.oxfam.org/files/file_attachments/rr-turning-humanitarian-system-local-capacity-270715-summ-es.pdf

WHS, 2016 (1). *Commitments to Action*.

https://www.worldhumanitariansummit.org/sites/default/files/media/WHS%20Commitment%20to%20Action_8September2016.pdf

WHS, 2016 (2). *Grand Bargain*.

http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand_Bargain_final_22_May_FIN_AL-2.pdf